

MERKEAR KIROL GUNEA DELA ETA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Merkear kirol gunea dela-eta, Udalbatzaren osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2018ko apirilaren 16ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailean, gai honetaz informazio bila, galdera aurkeztu genion zinegotzi-ordezkaritari. Erantzunean Topoaren igarobidearen obrak direla eta, handik ateratako lurra eremu honetara ez zirela ekarriko ziurtatu zuen. Bigarren galdera erantzun gabe geratu zen:

2- Futbol zelaia berriaren kronograma bat helaraz al dezakezue? Hau da, zelai berria eraikitzeko behar diren epeak zehaztuz.

Eta hirugarren galderaren erantzunean zinegotzi-ordezkariek pausorik ez zela eman adierazi zuen. Hona hemen galdera:

3- Gaur egun Herrerako futbol zelaia dagoen udal lursailarekin, zer proposatuko duzue? Herritarrek kontuan izango al dituzue?

Apirilean aurkeztutako interpelazioan kronograma eta kirol programa eskatu genituen eta horren arabera, zinegotzi-ordezkariek proiektua ekainerako eginda egongo zela adierazi zuen. Irailean gaude eta horrelakorik ez dugu jaso.

Bestalde Altzako herritarrekin proiektua partekatzea eskatu genuen, Altzan hainbat kezka (adibidez, mugikortasuna aldetik) baitaude.

Hauek honela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

KONTROL MOZIOA

1- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Merkear kirol gunearen proiektua osorik (kirol ezaugarriak, ingurumena... mugikortasun plana barne) auzotarrei auzoan bertan aurkez diezaiela.

Donostia, 2018ko irailaren 21ean

Josu Mirena Ruiz Martin

EH Bildu udal taldeko zinegotzia